



Hutsuneak-hutsune eta eguraldi kaxkarra gaindituta 2012ko Areatzako Euskal Jaia antolatzen ibili garenok positibotzat jo dugu antolatutako eguna. Edozein kasutan ere, argi daukagu jaiaren arrakasta ekimen ezberdinetan parte hartu duen jendearen gogo eta eskuzabaltasunean datzala. Dantza eta jokoak prestatzen, bazkaria banatzen eta mahaiak antolatzen, musika jotzen, dantza egiten, taloak, berakatz sopa eta gaztainak egiten eta banatzen, azoka postuak eta abar jartzen eta antolatzen ibili zareten guztioi esker egiten da jai hau.

Herritar askok lan pilo bat egiten dau musu-truk, jai egunean bertan eta alde zurratik ere. Ez dugu inor ahaztu nahi, ezta ere guztiok egin duzuen ahalegina eskertu barik utzi, beraz, aurten bereziki eskerrak eman gure dizkizuegu egindako lanagatik eta datorren urteko Euskal Jaiaren programaren antolatze eta ospatze jardueretan berriro ere, parte hartzeko deia egin gure dizuegu, honen bitartez.

ESKERRIK ASKO ETA DATORREN EUSKAL JAIARA ARTE!

